ZARAITZUKO BATZORDEA NAGUSIA
31690 Ezcároz-Ezkaroze
Tlfn. 948-890055
junta@valledesalazar.com
www.valledesalazar.com

**SILVIA PENA LORENTEK, ZARAITZUKO BATZORDE NAGUSIKO IDAZKARIAK, ZIURTATZEN DU:**

2023ko abuztuaren 21ean egindako ohiko Osoko Bilkuran honako akta hau egin da:

"Zaraitzuko Etxeko bilkura-aretoan (Ezkaroze), **2023ko abuztuaren 21eko** 19:30ean, Zaraitzuko Batzorde Nagusiak ohiko Osoko Bilkura egin du, Gustavo Goiena Batzordeburu dela.

Batzordekide hauek bertaratu dira:

**ALDAGAINA:** Juan Angel Contin Carlosena, Iñaki de Carlos Inchusta eta Koldo Vicente Eseberri.

**ERRARTEA:** Unai Yarza Salaberria eta Maitane Eslava Pena.

**ATABEA:** Gustavo Goiena Agirre, Jose Angel Molinero Torrea eta Milagros Zubiri Sanz.

Raul Carretero Udik bertaratu ezina adierazi du.

Batzordeburuak bilkura hasi, eta honako erabaki hauek hartu dira:

**1. AURREKO BILKURAREN AKTA ONESTEA**

Uztailaren 11ko akta ikusirik, ahoz batez onetsi da.

**SILVIA PENA LORENTE, SECRETARIA DE LA JUNTA GENERAL DEL VALLE DE SALAZAR, CERTIFICO:**

Que de la sesión **ORDINARIA** celebrada con fecha 21 de agosto de 2023, se ha extendido el acta que se transcribe a continuación:

"En la Villa de Ezcároz y en la Sala de Sesiones de la Junta General del Valle de Salazar, siendo las 19:30 horas del día **21 de agosto del 2023**, se reúne la expresada Junta, al objeto de celebrar, previa convocatoria cursada al efecto en forma reglamentaria, Sesión Ordinaria bajo la Presidencia de D. Gustavo Goiena Agirre y con la asistencia de las y los siguientes Vocales:

**POR ALDAGAÑA:** D. Juan Ángel Contin Carlosena, D. Iñaki de Carlos Inchusta, D. Koldo Vicente Eseberri.

**POR ERRARTEA:** D. Unai Yarza Salaberria, Dña. Maitane Eslava Pena.

**POR ATABEA:** D. Gustavo Goiena Agirre, D. Jose Ángel Molinero Torrea, y Dña. Milagros Zubiri Sanz.

D. Raul Carretero Udi excusa su asistencia.

Abierta la sesión por el Sr presidente, se adoptaron los siguientes acuerdos:

**1.- APROBACIÓN ACTA ANTERIOR**

Vista el acta del 11 de julio, se aprueba por unanimidad.

ZARAITZUKO BATZORDEA NAGUSIA
31690 Ezcároz-Ezkaroze
Tlfn. 948-890055
junta@valledesalazar.com
www.valledesalazar.com

**2. EUROPAR BATASUNEKO NEXT GENERATION FUNTSAK KUDEATZEKO IRUZURRARAREN AURKAKO NEURRIEN PLANA ONESTEA**

Europako Kontseiluak 2020ko ekainaren 21ean onetsi zuen Next Generation EU programa sortzea, koronabirusak eragindako krisiari aurre egiteko eta ekonomia suspertzeko tresna bat. Suspertzerako eta erresilientziarako mekanismoa da funts horren muina.

Zaraitzuko Batzorde Nagusiak, susperraldi, eraldaketa eta erresilientzia Planaren erakunde betearazlea den aldetik, dokumentu batean jaso behar du iruzurraren aurkako neurrien plana, Batzordeko langileek baldintzak betetzea errazteko.

Iruzurraren aurkako batzordea da neurriak behar bezala aplikatzeaz arduratu behar den organoa, prebentzioaren, detekzioaren eta zuzenketaren arloan.

Batzorde Nagusiak aho batez erabaki du Gustavo Goiena batzorde horretako buru izendatzea, eta Juan Angel Contin Carlosena eta Silvia Pena Lorente haren ordezkoak izatea. Iruzurraren aurkako batzordea urtero bilduko da.

**3. JAIOTZAGATIKO DIRULAGUNTZA ESKAERA**

Andrea Udi Manchok bere semearen jaiotzagatik aurkeztutako eskaera eta dokumentazioa aztertu ondoren, aho batez erabaki da dirulaguntza ematea.

**2.- APROBACIÓN DEL PLAN DE MEDIDAS ANTIFRAUDE PARA LA GESTIÓN DE LOS FONDOS NEXT GENERATION DE LA UNIÓN EUROPEA.**

El Consejo Europeo aprobó el 21 de junio de 2020 la creación del programa NextGenerationEU un instrumento de estímulo económico en respuesta a la crisis causada por el coronavirus. El Mecanismo para la Recuperación y la Resiliencia es el núcleo de este Fondo de Recuperación. La Junta General del Valle de Salazar, como entidad ejecutora del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia, recoge en el presente documento su Plan de Medidas Antifraude con el objetivo de facilitar la tarea del personal de la Junta para el cumplimiento de los distintos requisitos antifraude establecidos.

La comisión antifraude es el órgano responsable de la adecuada aplicación de las medidas antifraude en materia de prevención, detección y reacción. La Junta ACUERDA POR UNANIMIDAD nombrar como presidente de la comisión a Gustavo Goiena, y personas en quien delegue Juan Ángel Contin Carlosena y Silvia Pena Lorente, que se reunirán cada año.

**3.- SOLICITUD AYUDA A LA NATALIDAD**

Vista la solicitud y documentación presentada por Doña Andrea Udi Mancho por el nacimiento de su hijo, se ACUERDA POR UNANIMIDAD concederle la citada ayuda.

## 4. MUGEN EGUNA

Jakinarazi da 2023ko Mugen eguna abuztuaren 27an, igandearekin, eginen dela. Aurten, Batzorde Nagusiak antolatuko du, Larraineko Udalaren laguntzaz.

Hau izanen da eguneko egitaraua:

- 11:00: Hamaiketakoa Abodin
- 11:30: Zaraitzu Kantuz
- 12:30 Mugarriak aztertzea eta akta sinatzea Iturzaetan.

Batzordeburuak hartu du hitza, eta esan du Nafarroa eta Frantzia arteko muga oraindik itxita dagoela, eta Batzordeak muga hori irekitzeko interesa adierazten jarraituko duela.

Erantsirik, Batzorde Nagusiak eta Larraineko Udalak adostutako idazkia, Mugen egunean irakurri zena.

## 4.- DIA DE MUGAS

Se informa de la celebración del Dia de Mugas 2023, que será el domingo 27 de agosto. Este año la comida corre a cargo de la Junta del Valle de Salazar, pero, aun así, se colabora con el Ayuntamiento de Larrau-Larraine.

Los actos serán los siguientes:

- 11:00 Almuerzo en Abodi para personas del Valle.
- 11:30 Zaraitzu Kantuz
- 12:30 Reconocimiento de los mojones y firma del acta en Iturzaeta.

El Sr. Presidente toma la palabra para comentar que la frontera entre Navarra y Francia sigue cerrada y que la Junta seguirá manifestando su interés por abrir la citada frontera.

Se adjunta el escrito acordado entre la Junta y el Ayuntamiento de Larraine, el cual se dio lectura en el día de mugas.

## 5. HOGEITA HAMALAUGARREN ORDENANTZA: LARREEN APROBETXAMENDUA

Otsailaren 23an, ibarreko udaletara bidalitako jakinarazpenaren bidez, abeltzain orori jakinarazi zitzaion abereak bortura eramateko aurreikuspena eta NPBrako Zaraitzuko herri-lurren azaleraren ziurtagiria eskatzeko agiriak Batzordearen idazkaritzan aurkeztu beharko zituztela otsailaren 27tik martxoaren 3ra bitartean.

2023ko martxoaren 7ko osoko bilkuran, Batzordeak herri-larreen aprobetxamendua ukatu zien Maria Sario

## 5.- ORDENANZA TRIGÉSIMA CUARTA – APROVECHAMIENTO DE PASTOS

El 23 de febrero se envió a todos los ayuntamientos del Valle de Salazar una comunicación en la que se ponía en conocimiento de todas las personas ganaderas que, si necesitaban obtener el “certificado de superficie comunal del Valle para la PAC” así como la previsión de ganado para subir al puerto, presentasen la correspondiente documentación del 27 de febrero al 3 de marzo del 2023 en secretaría.

En sesión del 7 de marzo del 2023 la Junta denegó a Maria Sario Lopez y Jose

ZARAITZUKO BATZORDEA NAGUSIA
31690 Ezcároz-Ezkaroze
Tlfn. 948-890055
junta@valledesalazar.com
www.valledesalazar.com

Lopezi eta Jose Javier Huarte Huarteri, hogeita hamalaugarren ordenantza ez betetzeagatik (abereak ibarreko hirietako batean erregistratuta egotea).

Eskatzaileek berraztertzeko errekurtsoa jarri zuten, eta apirilaren 11ko osoko bilkuran Batzordeak bere erabakia berretsi zuen.

Ekainaren 8an, Batzorde Nagusi berria eratu zen, eta berriz ere gaia aztertu zuen. Jakin zuenez, abeltzain horiek behorrak Erremendira eraman zituzten baimenik gabe, araudia urratuta. Hori dela eta, uztailaren 11ko osoko bilkuran, larre horiek aprobetxatzeko eskubidea ukatzea erabaki zen, eta beste jakinarazpen bat bidali zitzaien.

Hiru jakinarazpen jaso arren, uztailean aziendak Erremendian bazkatzen jarraitzen zuen. Uztailaren 28an jakinarazpen bat bidali zitzaien abereak Batzordearen herri-larreetan baimenik gabe bazkatzeak dituen ondorioen berri emateko, eta behorrak berehala ateratzeko eskatzeko. Uztailaren 31n Erremendian jarraitzen zuten.

Abuztuaren 3an, Maria eta Jose Javierren eskaera jaso zen, azienda Batzordearen larreetan sartzeko baimena eskatuz.

Zaraitzuko Batzorde Nagusiaren larreak (Irati eta Erremendia) aprobetxatzeko araudian eta ez-betetze eta zehapenen araubidean, zehapenen eta penalizazioen atalean, arau-hauste

Javier Huarte Huarte poder subir su ganado al comunal de la Junta por no cumplir con la Ordenanza Trigésimo Cuarta (tener su ganado registrado en alguna de las villas). Comunicado mediante notificación, interponen Recurso de Reposición.

En sesión de 11 de abril, se resuelve el citado Recurso. La Junta se mantiene en el acuerdo adoptado en la sesión anterior por seguir incumpliendo la citada ordenanza, volviéndoselo a notificar.

El 8 de junio, cambia la corporación de la Junta, y se vuelve a tratar el tema de la posibilidad de autorizar el disfrute del comunal del Valle a las citadas personas.

Enterándose la Junta de que han llevado sus yeguas a Remendia sin autorización incumpliendo la normativa, y habiéndoselo notificado por dos veces, en sesión del 11 de julio se vuelve a acordar denegar el derecho al aprovechamiento de dichos pastos, y se envía notificación.

Aun habiendo recibido las 3 notificaciones, el ganado sigue pastando en Remendia durante el mes de julio.

El 28 de julio se les envía un comunicado advirtiendo de las consecuencias que tiene tener el ganado en el comunal de la Junta sin autorización, y pidiendo la retirada inmediata de dicho ganado.

A día 31 de julio el ganado sigue en Remendia.

El día 3 de agosto se recibe instancia de Maria y Jose Javier solicitando expedición de la correspondiente autorización para introducir el ganado en los pastos de la Junta.

En la normativa y régimen de

ZARAITZUKO BATZORDEA NAGUSIA
31690 Ezcároz-Ezkaroze
Tlfn. 948-890055
junta@valledesalazar.com
www.valledesalazar.com

oso larritzat jotzen da abereak larreetara eramatea baimenik gabe: 3.000 eurora arteko zehapen ekonomikoa eta/edo hurrengo kanpainan 30 eguneko atzerapena bortuetara igotzeko datan.

Batzordeak aho batez erabaki du aurreko osoko bilkuretako erabakiak berrestea (ez baimentzea) eta Maria Sario Lopezi eta Jose Javier Huarteri zehapen hau ezartzea: 2024ko kanpainan bortura igotzeko data 30 egunez atzeratzea.

**6. ENKANTEAN ATERATAKO EGUR-SORTAK BEHIN BETIKO ESLEITZEA:**

Aho batez erabaki da 2023ko planeko loteak behin betiko esleitzea:

1. lotea, **Arrantzalerreka** alderdian: Barbiur S.L.-ri, 133.040 euroan.

2. lotea, **Zamukadoia** alderdian: Oihanzalea S.L.-ri, 41.200 euroan.

3. lotea, **Paco La Mosquera** alderdian: Arpanari, 70.440 euroan.

4. lotea, **Alertzes** alderdian: Maderas Irabarneri, 55.605 euroan.

5. lotea, **Bideberria** alderdian: Maderas Irabarneri, 72.650 euroan.

6. lotea, **Ibarrondoa** alderdian: Maderas Telletxea Santestebani, 32.600 euroan.

Idazki bat igorriko zaio Ingurumeneko Departamentuari enpresen mozketa-lizentzia eskatzeko.

incumplimientos y sanciones para el aprovechamiento de los pastizales de la Junta General del Valle de Salazar: Irati y Remendia, en el apartado de sanciones y penalizaciones, se considera falta muy grave llevar a los puertos ganado no autorizado con la siguiente sanción: sanción económica hasta 3.000€ y/o en la siguiente campaña habrá retraso de 30 días en la fecha de subida a los puertos de la Junta.

La Junta ACUERDA POR UNANIMIDAD ratificarse en los acuerdos de sesión anteriores (no autorizar) y sancionar por incumplir a Maria Sario Lopez y Jose Javier Huarte Huarte con el retraso de 30 días en la fecha de subida al puerto en la campaña 2024.

**6.- ADJUDICACIÓN DEFINITIVA LOTES SUBASTA**

Se ACUERDA POR UNANIMIDAD la adjudicación definitiva de los lotes del Plan 2023:

LOTE Nº 1.- Paraje “**ARRANTZALERREKA**”: Barbiur S.L. por la cantidad de 133.040€.

LOTE N.º 2.- Paraje “**ZAMUKADOIA**”: Oihanzalea S.L. por la cantidad de 41.200€.

LOTE Nº 3.- Paraje “**PACO LA MOSQUERA**”: Arpana formación forestal por la cantidad de 70.440€.

LOTE N.º 4.- Paraje “**ALERCES**”: Maderas Irabarne por la cantidad de 55.605€.

LOTE N.º 5.- Paraje “**BIDEBERRIA**”: Maderas Irabarne por la cantidad de 72.650€.

LOTE N.º 6.- “**IBARRONDOA**”: Maderas Telletxea Santesteban por la cantidad de 32.600€.

Se prepara escrito para solicitar al

## 7. IZANDAKO BILEREN BERRI EMATEA

BASALDEAKO ITXITURA

Abuztuaren 1ean, Nafarroako Gobernuko Ingurumeneko langileak, ElectroSaltea enpresa eta Batzordeko langileak Basaldea inguruan bildu ziren, eraispen-proiektuan jasotako landatze eta basoberritze neurriak aztertzeko. Bere garaian ez zen beharrezkoa ikusi landaketa egitea, pinua berez hazten ari zelako. Alabaina, basoberritze horrek porrot egin du abereengatik eta landaredia ugaritzeagatik. Hori dela eta, beharrezkotzat jotzen da bestelako basoberritze bat burutzea, proiektuan agertzen ez diren beste neurri batzuk abiatuz.

Basaldeako perimetroa ixtea erabaki da, eremua nahitaez leheneratu behar delako. Horrela, herri-larreetan dauden abereak ezin izanen dira atera. Sastrakak moztu beharko dira lurrazaletik ahalik eta hurbilen, lurzoru mineralari eragiteko eta pinua hazten laguntzeko.

PIRINIOKO MAHAIA

Uztailaren 31n Zaraitzuko Etxean egindako bilerara Gustavo Goiena Agirre eta Mila Zubiri Sanz bertaratu ziren, eta honako gai hauek aztertu zituzten: Pirinioko Mahaiaren antolaketa eta hemendik aurrerako jarduketak. Mahaia eratzeko eta funtzionamendua zehazteko beste bilera bat eginen dela aipatu zen.

Departamento de Medio Ambiente la licencia de corta de las empresas.

## 7.- REUNIONES MANTENIDAS

CIERRE DE BASALDEA

El 1 de agosto se reúne el personal de Medio Ambiente del Gobierno de Navarra, la empresa ElectroSaltea, y personal de la Junta en la zona de Basaldea para tratar el tema de las medidas de regeneración y repoblación contempladas en el proyecto de desmantelamiento. Se consideró que en su momento no era necesario proceder a la repoblación, porque se había conseguido la regeneración natural del pino. Esta ha fracasado por la presencia de ganado y el desarrollo de la vegetación. Se considera necesario la regeneración con medidas alternativas a la propuesta en el proyecto.

Se acuerda hacer un cierre perimetral de la zona de Basaldea debido a la regeneración obligatoria de la zona. Así el ganado que está en el comunal de la Junta no se podrá escapar. El desbroce debe hacerse lo más bajo posible, con el fin de afectar al suelo mineral y favorecer la regeneración del pino.

MESA DEL PIRINEO

En la reunión mantenida el 31 de julio en la Casa del Valle de Ezcároz, a la que acudieron Gustavo Goiena Agirre y Mila Zubiri Sanz, se trataron los siguientes temas: por una parte, la organización de la Mesa del Pirineo, por otra parte, futuras actuaciones y, por último, se habló de que habrá otra reunión de constitución de la

ZARAITZUKO BATZORDEA NAGUSIA
31690 Ezcároz-Ezkaroze
Tlfn. 948-890055
junta@valledesalazar.com
www.valledesalazar.com

Horretaz gain, irailean ibarreko udalekin bilera bat eginen dute, Zaraitzuko udalen ordezkaria erabakitzeko.

PATXI SAROBE, ALTXA ENPRESA

Abuztuaren 2an Batzordea Patxi Saroberen bildu zen, Tokiko Agendaren eta Nafarroa Ezagutu Sarearen dirulaguntzekin egindako lanak eta egin beharrekoak aztertzeko.

KANTUZ

Zaraitzun Kantuz taldeak bere gastuen zerrenda aurkeztu du. Guztira, 700 euro dira: 600 euro fakturekin eta 100 (logotipo baten errotulazioa) fakturarik gabe.

2022ko azaroaren 25eko osoko bilkuran erabaki zen diru-ekarpena eginen zela Batzordearen kultura- eta kirol-jardueretarako dirulaguntzen oinarri arautzaileak oinarri hartuta. Beraz, Batzordeak aho batez erabaki du fakturen bidez justifikatutako gastuen % 33 ordaintzea, hau da, 198 euro. Gainerako 502 euroak emanen zaizkie Mugen egunean eta Urruxkide egunean abesteagatik.

Heldu den urtean hitzarmen bat eginen da Zaraitzun Kantuz taldearekin.

AIERDI INGENIARIAK ETA PROIEKTU ESTRATEGIKOAK

Uztailaren 13an eta 17an Batzordea Proiektu Estrategikoen

mesa y la forma de funcionamiento.

En septiembre harán otra reunión con los ayuntamientos del Valle para decidir un representante de algún ayuntamiento junto a la Junta.

PATXI SAROBE DE LA EMPRESA ALTXA

El 2 de agosto la Junta se reunió con Patxi Sarobe para hacer una revisión de trabajos a realizar y realizados con las subvenciones de Agenda Local y Red Explora.

KANTUZ

El grupo Zaraitzun Kantuz entrega a la Junta una suma de gastos realizados de 600€ más 100€ de rotulación de logotipo (sin factura), un total de 700€ de gasto.

Mediante acuerdo de sesión del 25 de noviembre, se acordó que, para solicitar el aporte económico, deberán tener como base las bases reguladoras de las subvenciones para actividades culturales y deportivas de la Junta. Por lo tanto, la Junta ACUERDA POR UNANIMIDAD abonarles el 33% de los gastos (mostrando las facturas), es decir, 198€ por la factura justificada. Los 502 euros restantes se les pagará por la presencia en el día de Mugas y en el día el Valle.

Para el año que viene se creará un convenio para el grupo de Zaraitzun Kantuz.

AIERDI INGENIEROS Y PROYECTOS ESTRATÉGICOS

El 13 y 17 de julio se reunió la Junta con el Departamento de Proyectos

Departamentuarekin eta Aierdi Ingenieros enpresarekin bildu zen, eta Erremendiako obretara bisita egin zuten, horren jarraipena egiteko eta aurrera begirako jarduketak aztertzeko.

ZARAITZUKO HAURTZARAKO SAREA

Abuztuaren 9an Batzorde Nagusia eta udalak Haurtzaroko Sarearekin eta Otsagabiko ikastetxeko Guraso elkartearekin bildu ziren, haur hezkuntzako ikasleen atsedenerako gune bat izateko beharra aztertzeko. Ratioak kontuan hartuta, Hezkuntza Departamentuak bi zaintzaile bakarrik finantzatzen ditu jarduera horretarako.

Batzordeak aho batez erabaki du zenbateko osoaren erdia ematea, 1.792,44 euro.

MUGAZ GAINDIKO JARDUERAK

Abuztuaren 17an Erronkarin izandako bilerara Iñaki de Carlos joan zen. Bertan mugaz gaindiko hurrengo deialdiei buruzko zalantzak argitu ziren.

**8. JASOTAKO IDAZKIAK**

BIZIRIK GAUDE: Galdetu du Batzorde berriak egurraren proiektuarekin aurrera jarraitzeko asmoa duen edo beste aukera batzuk dituen. Batzordeak aho batez erabaki du irailean Bizirik Gauderekin biltzea proiektuari buruz hitz egiteko, Batzordearen talde teknikoaren aholkularitzarekin.

CRISTINA GOIENA CAMBRA:

Estratégicos y la empresa Aierdi Ingenieros e hicieron visitas a las obras de Remendia para su seguimiento y posible futuro.

RED DE INFANCIA DEL VALLE DE SALAZAR

El 9 de agosto la Junta y los ayuntamientos se reúnen con la red de infancia del Valle de Salazar y con la APYMA del colegio de Otsagabia para tratar la necesidad del alumnado de infantil y tenga un espacio de descanso. Con la financiación de las ratios del Departamento de Educación del Gobierno de Navarra solo subvenciona a dos personas cuidadoras para esta actividad. La Junta ACUERDA POR UNANIMIDAD aportar la mitad de la cantidad total: 1.792,44€.

ACTIVIDADES TRANSFORNTERIZAS

El 17 de agosto acude Iñaki de Carlos a la reunión en Roncal, con la finalidad de poder consultar y aclarar dudas sobre las próximas convocatorias transfronterizas.

**8. ESCRITOS RECIBIDOS**

BIZIRIK GAUDE: se recibe correo consultando si la nueva Junta tiene idea de seguir con el proyecto de la leña adelante, o tiene otras alternativas, ya que, hasta el cambio de junta, esta ha participado en el proyecto. **La Junta acuerda por unanimidad que en septiembre se reúnan las dos partes (Junta y Bizirik Gaude) para hablar sobre el citado proyecto, con asesoramiento de nuestro equipo técnico**.

CRISTINA GOIENA CAMBRA: se recibe escrito solicitando el Acta de

Mugarriztatze-akta bat eskatu du, Gabina Cambra familiako norbaitek adostasuna agertu eta sinatu zuena. Batzordeak erantzun du 1905etik aurrerako artxiboak aztertzen ari dela. Egoera argitu arte, ezin izanen da eremu hori ustiatu.

Amojonamiento en donde alguien de la Familia Gabina Cambra estuvo de acuerdo y se encuentra firmada. **La junta está estudiando los archivos desde 1905 en adelante. Hasta que no se aclare la situación no se puede explotar esa zona.**

## 9. DIRUAREN ERABILERA

Faktura hauek onetsi dira:

## 9.- DISPOSICIÓN DE FONDOS

Seguidamente son aprobadas las facturas que se detallan a continuación:

ASOC. CEDERNA GARALUR, 2ª parte cuota 2023 ........................................................ 5.240,90
FERRETERIA IRIGARAY, diverso material cierres ganaderos.............................................. 75,25
ASOCIAC. CONSUMIDORES IRACHE, cuota vecinos Valle, Julio ..................................... 250,00
EKILORE, limpieza Casa Valle, Julio ................................................................................ 183,92
LARÉBENNE, estudio itinerancia en Irati (Microproyecto Interreg) ............................ 1.116,00
GRUPO IRYAL, cambio de correas y polea, generadores Casas de Irati ......................... 878,73
FLANDES, gestiones asesoría 3º trimestre ..................................................................... 532,40
F.N.M.T. certificado digital presidente ............................................................................. 16,94
TUV RHEINLAND NAVARRA, ITV Toyota 6692 GCF ........................................................... 56,17
IRATI BASOA, comida bomberos y trabajadores reparación balsa ................................ 198,00
LUGA, rollo banda señalización blanca y roja .................................................................. 24,25
SOM ENERGÍA, luz dependencias Casa Valle, junio ........................................................ 294,34
CONATEL, teléfono y wifi, vía satélite junio, Caseta Información Turística Irati .............. 66,55
RCI BANQUE, recibo 37/60 lissing coche Dacia .............................................................. 344,63
CONATEL, teléfono y wifi, vía satélite Julio, Caseta Información Turística Irati ............... 66,55
IBERDROLA, luz báscula ...................................................................................................... 7,46
IBERDROLA, LUZ 2º PLANTA Casa Valle ............................................................................ 20,69
MOVISTAR, fusión tfno Junta, Serv. Euskera, móvil trabajadores e internet, junio ........ 141,57
MOVISTAR, " " " " " " Julio .......... 141,57
ITOLEGI, material cierres ganaderos .................................................................................. 56,63
AULKIA, carpa Abodi, fiesta Lau Ibarrak ....................................................................... 3.623,95
IRATI BASOA, aperitivo kANTUZ, fiesta lau Ibarrak ........................................................... 63,50
RCI BANQUE, recibo 38/60 lissing coche Dacia .............................................................. 344,63
SALTOKI, diverso material ganadería y pastos .................................................................. 83,14
ESTACIÓN SERV. IRATI, gasóleos coches, Julio ............................................................... 675,96
ALFONSO FONTANERIA, arreglo fuga caseta Cederna en Iciz ......................................... 152,58
LINACAL, contrato mantenimiento caldera gas Centro Esquí Abodi ................................ 249,19
SOM ENERGÍA, luz dependencias Casa Valle, Julio .......................................................... 301,64
EKILAN, asistencia técnica, elaboración informe, visitas a parcelas, redacción y cartografía para cambio de Coeficiente aprovechamiento pastos, SIGPAC .................................. 1.320,00

ZARAITZUKO BATZORDEA NAGUSIA
31690 Ezcároz-Ezkaroze
Tlfn. 948-890055
junta@valledesalazar.com
www.valledesalazar.com

MIGUEL EZCURDIA, lectura contador fotocopiadora e impresora ................................949,08
AZTIKER KOOP. Estudio modelo D, Servicio Euskera ....................................................137,21

**10. GALDE-ESKEAK**

Ez dago.

Eta gai gehiagorik egon ez denez, 22:00etan Batzordeburuak bilkura amaitu du.

Eta horrela jasota gera dadin, ziurtagiri hau eman dut, Zaraitzuko Batzorde Nagusiaren zigilua jarrita eta Batzordeburuak ontzat emana.

Ezkarozen, 2023ko abuztuaren 24an

**10.- RUEGOS Y PREGUNTAS**

No se suscitan.

Y, no habiendo más asuntos a tratar, el Sr. presidente levanta la sesión, siendo las veintidós horas.”

Y para que así conste, expido la presente certificación sellada con el cuño de la Junta y con el Vº Bº del Presidente.

En Ezcároz, a 24 de agosto de 2023.

33437743K GUSTAVO GOYENA (R: P3174900E)
Firmado digitalmente por 33437743K GUSTAVO GOYENA (R: P3174900E)
Fecha: 2023.09.20 12:19:07 +02'00'

JUNTA GENERAL DEL VALLE DE SALAZAR - ZARAITZUKO BATZAR NAGUSIA - EZCAROZ

73117228K SILVIA PENA (R: P3174900E)
Firmado digitalmente por 73117228K SILVIA PENA (R: P3174900E)
Fecha: 2023.09.20 12:19:21 +02'00'

**INPOSAKETARIK EZ!! MUGARIK EZ EUSKAL HERRIAN!!**

Hemen gaude, urtero bezala, Zaraitzuko eta Larraineko hautetsiak eta biztantelak gure mugen eguna ospatzen.

Betidanik mugen egun hau, harreman eta anaikidetasun egun bat izan da, bizilagunak eta anai-arrebak garela aldarrikatzeko.

Zoritxarrez, aurten ere, gutxi daukagu ospatzeko eta bai, asko salatzeko.

2021eko urtarrilaren 8an, Frantziako Estatuak, Zaraitzuko eta Larraineko -Nafarroako eta Zuberoako mugaz gaindiko errepidea itxi zuen. Erabaki hau inposaketa bat izan zen, gure iritziarekin kontatu gabe hartu zen, eta gure interesen kontra.

Gaur egun, errepidea itxita jarraitzen du, eta errepidea itxita mantentzea, inposizioa da, gure iritzia eta interesesen kontrakoa delako.

Errepidea itxita izatea, gure bizimoduaren kontra doa, gure harreman pertsonalak, sozialak, kulturalak eta ekonomikoak oztopatzen ditu, eta horregatik, argi eta garbi, hau esaten dugu:

-Frantziako Estatuari gure arteko mugaz gaindiko pasabidea berehala irekitzea exijitzen diogu

-Europako instituzioei egoera bidegabe eta legez kontrako honekin bukatzea.

-Nafarroako Gobenuari, Euskal Elkargoari, Deparmenduari eta Akitania berria- Euskadi eta Nafarroako euroeskualdeari beraien esku dagoen guztia egitea errepidea irekitzeko.

Hemen erabaki behar dugu eta hau nahi dugu:

Inposaketarik ez! Mugarik ez Euskal Herrian!!

JUNTA GENERAL DEL VALLE DE SALAZAR · ZARAITZUKO IBARRAREN BATZORDEA · EZCAROZ

**¡NO A LAS IMPOSICIONES! ¡NO A LAS FONTERAS EN EUSKAL HERRIA!**

Como todos los años, aquí estamos representantes y habitantes de Zaraitzu y Larraine celebrando el día de nuestras mugas.

Desde siempre, este día de mugas ha sido un día de relación y de hermandad para proclamar que somos vecinos y hermanos/as.

Por desgracia, este año también tenemos poco que celebrar y sí mucho que denunciar.

El 8 de enero de 2021 el Estado francés cerró el paso transfronterizo entre Salazar y Larrau – entre Navarra y Zuberoa. Esta decisión fue una imposición, se tomó sin contar con nuestra opinión y en contra nuestros intereses.

Hoy, la carretera continúa cerrada, y mantener cerrada esta carretera es una imposición, porque va en contra de nuestra opinión y de nuestros intereses.

Mantener cerrado este paso va contra nuestra forma de vida, obstaculiza nuestras relaciones personales, sociales, culturales y económicas, y por eso, claramente decimos lo siguiente:

-Exigimos al Estado francés la inmediata apertura de esta carretera.

-Pedimos a las instituciones europeas acabar con esta situación injusta e ilegal

-Pedimos al Gobierno de Navarra, a la Mancomunidad del País Vasco, al Departamento y a la Euroregión Nueva Aquitania-Euskadi-Navarra que hagan todo lo que este en sus manos para que se abra esta carretera.

Tenemos que decidir aquí, y esto es lo que queremos:

¡No a las imposiciones! ¡No a las fronteras en Euskal Herria!

JUNTA GENERAL DEL VALLE DE SALAZAR

EZCAROZ